

Alkarbidek -Bizkaiko Euskara Zerbitzuen bilguneak- koordinatuta, DBH3 eta DBH4ko ikasleengana heldu nahi da kanpaina honen bidez.

NAHI DUDALAKO! BATXILERGOAN ETA LANBIDE HEZIKETAN EUSKARAZKO IKASKETAK SUSTATZEKO KANPAINA

Bizkaiko 16 udalerri eta 3 mankomunitatek parte hartu dute *Nahi dudalako!* kanpainan DBH3 eta DBH4ko ikasleen artean banatzeko.

Kanpainaren ezaugarri nagusiak

Urtez urte Batxilergoa eta Lanbide Heziketako matrikulazio garaia heldu baino lehen, Bizkaiko hainbat udalerri informazioa banatzen diete Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasketak euskaraz ikasi duten gazteei, Batxilergoa eta Lanbide Heziketan euskaraz egin ahal dituzten eta zein herritan burutu ahal dituzten ikasketak adierazteko. *Nahi dudalako!* kanpainaren oinarria www.nahidudalako.com web gunea da eta gazteak web gune horretara bideratzeko 6400 eskuorri banatuko dituzte Bizkaiko 37 udalerritan.

Alkarbidek, Bizkaiko euskara zerbitzuen bilguneak, koordinatu duen proiektu honetan Bizkaiko 16 udalerri eta 3 mankomunitatek parte hartu dute eta 15 eta 16 urteko gazteen artean banatuko da web gunea bideratzen duen eskuorria.

Helburua

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailan ari diren gazteei Batxilergoa eta Lanbide Heziketako ikasketak euskaraz jarraitzeko informazioa ematea. Informazio hori www.nahidudalako.com web gunearen dute ikusgai.

Parte hartzaileak

Bizkaiko **16 udal** eta **3 mankomunitate**. Guztira, honako **37 erakunde** hauek:

Abanto-Zierbena • Arrigorriaga • Balmaseda • Berango • Bilbo • Elorrio • **Enkarterriko Mankomunitatea** • Erandio • Etxebarri • Getxo • Gordexola • Laukiz • Maruri-Jatabe • Muskiz • Ortuella • Sestao • **Txorierriko Mankomunitatea** • **Uribe Kostako Mankomunitatea** • Zierbena.

Kanpainaren edukia

Kanpainaren berri emateko eskuorria banatuko da DBH3 eta DBH4ko gazteen artean. Eskuorri horrek gazteak www.nahidudalako.com web gunea bideratuko ditu, web gunea bera baita kanpaina honen ardatz nagusia. Bertan gazteek Batxilergoa zein Lanbide Heziketa euskaraz egiteko duten eskaintzaren berri zehatza jaso ahal izango dute.

Web guneak berrikuntzak izan ditu aurtan. Bilatzailea dago betetik, ikasketak edo ikasketa horiek eskaintzen dituzten ikastetxeak bilatzeko, hau da, mapan bilatu ezin dena, bilatzaitetik bilatu ahal izango da. Bestetik, *Testigantzak* izeneko atal berria ere badago, hau da, Batxilergoa edo Lanbide



Egitasmoaren hartzaileak kanpaina parte hartu duten udalerrietako DBH3 edo/eta DBH4 ikasten ari diren gazteak dira. Goian aipatutako udalerrri guztiak ez dute eskuorria bi mailetan banatuko